



Luis de Isusi García

EITBko Artxibo eta Dokumentazio Sailaren burua

Bilbon jaio zen 1969an. Soziologiako lizentziaduna, Deustuko Unibertsitatean. ETBko Artxibo eta Dokumentazio Sailean lanean ari da 1995etik. Bideoteka, fonoteka eta hemeroteka biltzen ditu sail horrek, eta dokumentazio-laguntzaile gisa aritu zen bertan 1999ra arte; dokumentalista gisa, 1999tik 2009ra; bideotekaren koordinatzaile gisa, 2009tik 2013ra; eta sailaren arduradun gisa, 2013az geroztik. Zenbait literatura-sari irabazi ditu, Alfonso XIII.a narratiba-saria, adibidez, 1996an.

Ez dago gauza bakarra. Ahanztura da

Azken urteetan artxiboetan gauzatzen ari den digitalizazio-prozesuak berarekin ekarri du informazio-kantitatea harrigarriki handitzea. Teknologiaren bidez informazioa biltegitatzeko ahalmena handitu eta dokumentu historikoak berreskuratzeko lana erraztu ahala, etengabe sortzen dira edukiak eta metatuz eta metatuz doa informazio erredundante eta hutsala. Ugaritze horren eraginez, gero eta nekezagoak eta, batez ere, etsigarriagoak dira materiala aukeratzeko prozesuak. Izan ere, den-dena gordetzeko joera maximalista sendotzen ari da, eta gero eta zailagoa gertatzen da benetan adierazgarria zer den identifikatzea.